



Euskal Herrian, 2016ko azaroaren 15ean

Jaun agurgarriak

Lehenik eta behin jaso gure agurra. Eskertzekoa da bidali duzuen bigarren gutunean agertzen duzuen prestutasuna bake bidean aurrera egiteko. Esan behar dugu beste eragile batzuek horren erdia agertu izan balute askoz ere egoera hobegoan geundekeela gaur egun. Zuen jokabidearekin bakeak parez pare dituen oztopoak gainditu ahal izango dituela uste dugu.

ETAk zuek azaldutako izpituarekin bat datorrela adierazi nahi du, eta zentzu horretan ondoko erabakien berri eman nahi dizue:

- Arma eta lehergailuen inbentarioa eta zigilatzea egiteko lanak amaituta izanik (bai bederen teknikoki ahal izan dugun guztia), armagabetze fasea zabaltzea.
- Fase horri ekin ahal izateko nazioarteko eragileen laguntza eskatzea. Zentzu horretan Nazioarteko Egiatzatze Batzordeari bere misioa aldatzea, zabaltzea eskatuko zaio, armagabetzean inplikatzeko eta prozesu horretan lekukotasuna emateko. ETAk armagabetze osoa nahi du, zalantza izpirik utzi gabe.
- Gizarte zibilaren esku uztea armagabetzearen ardura politikoa eta teknikoa. Horregatik prozesu hori nola egingo den zuen ardura izango da. Soilik gauza bat eskatu nahi dugu: egiten den bideak ez dezala zirrikiturik utzi inork irakurketa okerrik egiteko, "garaituen eta garaileen" kontakizun maltzurra egiteko. ETAk gizarte zibilaren esku uzten du bere armak deuseztatzeko prozesuaren ardura. Gure helburua ETA erakunde ez armatutzat ahal bezain laster deklaratzeko da.

Bide hau egiteko gizarte zibilarekin harreman bide iraunkorra zabalduko dugu.

Zuen berrien zain, jaso berriro ere gure agurra.

Adeitasunez

Euskadi Ta Askatasunaren Zuzendaritzaren Batzordea

